

Hasteko, udal etxeari proposatuko genioke gure iritzia. Iada badakigu, posterrak egiten eta marketinean generalean, diru asko gastatzen dela baina tira.

Lehenik eta behin, herri guztia gure proiektuari buruzko posterrez beteko genuke, hau da herriko kale, plaza... guztietan posterrak jarriko ditugu. Ondoren, jendeari hainbat galdera egingo genizkioke gure proiektuari buruz, horrela beraien iritzia eta parte hartzea jorratuko genuke. Diru nahikoa badugu, onlineko iragarki bat jarriko genuke, gaur egun denak telebista nahiz ordenagailua erabiltzen dutelako. Honekin bezero gehiagoetara iristea lortuko dugu. Azkenik, onlineko web orri bat jarriko dugu gure proiektuari buruzko informazio guztiarekin, jendeak interesa edukiko balu, web orrian bere dudak jarri eta geuk erantzungo genituzke.